

**ERABAKIA, 2021eko uztailaren 14koa, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearena, 2021eko maiatzaren 21eko gerentearen erabaki bidez deitutako "SGIkerreko goi mailako teknikarien" lan-poltsak (1.Taldekoak) handitzeko hautaketa-prozesuan onartuak eta baztertuak izan diren hautagaien behin betiko zerrenda onartzeko.**

Gerentearen 2021eko maiatzaren 21eko erabakiaren bidez "SGIkerreko goi mailako teknikarien" lan-poltsak (1.Taldekoak) handitzeko hautaketa-prozesua deitu zen eta erabaki horren eranskinean deialdi hori arautuko duten oinarriak jaso ziren.

2021eko ekainaren 28an onartutakoan eta baztertutakoan behin-behineko zerrenda argitaratu zen. Zerrenda horri erreklamazioak egiteko epea bukatu ondoren, erreklamazioak aztertu eta onartutako erreklamazioek eragindako aldaketak egin dira.

Arestian adierazitakoagatik eta errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko erabakiaren bidez (2021eko otsailaren 12ko EHAA) pertsonalaren alorrean eskuordetu zaizkidan ahalmenez baliatuz,

#### **ERABAKI DUT:**

**Lehenengoa.-** "SGIkerreko goi mailako teknikarien" lan-poltsak (1.Taldekoak) handitzeko hautaketa-prozesuan parte hartzeko onartutakoan eta baztertutakoan behin betiko erantsitako zerrenda onartzea. Espezialitateak:

- Kalkulu zientifikoa.
- Genomika.
- Materialen eta gainazalen mikroskopia.
- Makroportaera-mesoegitura-nanoteknologia
- Neurri magnetikoak.
- Proteomika.
- XPS fotoelektroien espektroskopia.
- Raman-multiespektroskopia akoplatuak.

Lehiakideak hautaketa-prozesuetan behin betiko onartzeak lehiakideek prozesu horietan eskatzen diren baldintza orokorrak eta espezifikoak betetzen dituztela ulertzea dakar, lehiakideek aurkeztutako eskaeretan egiazkotzat aitortu dituzten eta eman dituzten datuen arabera. Edonola ere, lehiakideen behin betiko onarpena 9.2 oinarrian adierazitakoari kalterik egiteke ulertuko da.

**Bigarrena.-** Erabaki hau UPV/EHUK horretarako prestatutako web orrian argitaratzeko agindua ematea.



**Hirugarrena.**- Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, baina aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahalko zaio Gerentzia honi, hilabeteko epean, edo bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahalko administrazio-auzietako epaitegietan, bi hilabeteko epean. Bi epeak erabakia Deialdian jartzen dituen tokietan argitaratu eta biharamunetik hasiko dira kontatzen.

Leioan, 2021eko uztailaren 14an

UPV/EHUko GERENTEA

Miren Lorea Bilbao Arteché



Dokumentu hau hitzez hitz dator bat jatorrizkoarekin.  
Este documento concuerda literalmente con el original

Leioan, 2021eko uztailaren 14an  
Leioan, 14 de julio de 2021

Funtzionarioa: Miren Lorea Bilbao Arteché

UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO  
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA  
REGISTRO DE RESOLUCIONES  
ERABAKIEN ERREGISTROA  
Resol. nº 2698/2021 Erabaki 7k